

# Osoigo plataforma: Hego Euskal Herriko politikarien erantzunak eta horien konparaketa euskal hedabideen azalekin

(Osoigo platform: Answers of politicians of Hego Euskal Herria and their comparison with Basque media's covers)

Agirregabiria Lasagabaster, Ander;  
Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco  
Kristo Zeharkalea, (48480) Arrigorriaga, Bizkaia  
anderagirregabiria@gmail.com

Jaso: 22.11.2018

BIBLID [eISSN 1988-3935 (2017), 17; 5-40]

Onartu: 17.06.2019

---

*Ikerketak Osoigo plataforman alta emandako Hego Euskal Herriko politikarien erantzunak miatzen ditu hiru hilabetez. Azterketarako erabilitako metodologia proba objektiboen bilketan eta ikusketa hemerografikoan oinarritzen da. Ikerketan ondorioztatzen da, besteak beste, atari digitala demokrazia 2.0 eta komunikazio politikoaren adierazle dela, lau lurraldeetako kide politikoen presentzia urria bada ere.*

**Gako-hitzak:** Osoigo. Demokrazia 2.0. Politika 2.0. Monitorizazio politiko. Gardentasun politiko.

*La investigación analiza las respuestas de las y los políticos de Hego Euskal Herria, durante tres meses, en la plataforma Osoigo. El estudio presenta una metodología basada en recogida de datos objetivos y revisión hemerográfica. La investigación extrae la conclusión, entre otras, de que el portal digital es seña de comunicación política y democracia 2.0, pese a que la presencia de las y los políticos de los cuatro territorios sea testimonial.*

**Palabras clave:** Osoigo. Democracia 2.0. Política 2.0. Monitorización política. Transparencia política.

*L'investigation analyse les réponses des politiciens de Hego Euskal Herria sur la plateforme Osoigo pendant trois mois. L'étude présente une méthodologie basé dans collecté de données objectives et révision hémérographique. L'investigation extrait la conclusion, entre autres, que la plateforme est un exemple de démocratie 2.0 et communication politique, bien que la présence de politiciens des quatre territoires être témoignage.*

**Mots-clés:** Osoigo. Démocratie 2.0. Politique 2.0. Surveillance politique. Transparence politique.

## 1. SARRERA

Atalak demokrazia 2.Ori buruz orain arte idatzi dena batzen du autore eta lan ezberdinen ekarpenak kontuan edukita. Gainera, *Osoigo* atari digitalaren inguruko sormen zientifikoak azpimarratuko dira.

Heriberto Cairo Carouren *Democracia digital: límites y oportunidades lana* (2002) esan liteke dela ikergaia miatzen duen aitzindarietako bat, demokrazia 2.Oren izatea XXI. mendean kokatzen delako. Cairo Carou politologoak demokraziaren eta komunikazioaren arteko loturaz hitz egiten du haren liburuan (2002) informazio-jarioa eta espazio politikoaren eraldaketa digitalean interesa jarrita. Ez dago ahazteko demokrazia elektronikoa vs eztabaidarako demokraziaren arteko hastapenak markatzen dituela (Cairo Carou, 2002). Lau urte beranduago, Del Moralek, webgune pertsonalean,jauzi nabarmena ematen du sarearen eta komunikazioaren lotura definitzeko 20 pauso adierazten dituelako David Wainbergeren Manifiesto Cluetrain (2000) idazkian funtsatuta. Hurrengoak, alegia (Del Moral, 2006):

1. “Demokrazia elkarrizketa da.
2. Duela 50 urtetik, politikariak ohituta egon dira hedabide masiboak erabiltzearekin komunikazio oro burutzeko.
3. Esaniko medioak erabiltzeak komunikazio bertikala inposatu du, hau da: inperzonalak, luzea, homogeneoa eta aldebakarrekoa.
4. Komunikabide bakoitzak haren neurriak ezarri ditu.
5. 5. Joko politikoaren oinarria audientziari abiapuntu bateko informazioa igortzean aurkitzen da.
6. Sareak egoera ezjakina eskaintzen du: hartzaileak igorlearen mezua albora dezake, aditu nahi duenaren kontrola duelako eta ez du kasurik egingo igorleak harengana indibiduo bezala ez badu jotzen.
7. Internetek berri irekiak hurbiltzen ditu, edonork bestelako informazio iturriekin argitaratutakoa egiazta dezan.
8. Sareak era pertsonalean komunikatzeko hauta ematen du.
9. Komunikazio politikoaren zutabea mezuaren inguruko kontrolean fokatzen da.
10. Halaber, ez da posible jada mezua maneiatzea.
11. Aspaldiko komunikazio politikoaren teknikak hasiak dira pairatzen tresna berrien presioa.
12. Sarea erabiltzen ez dira tresnak murrizten, biderkatzen baizik.

13. Internet baino garrantzitsuagoak dira bertan sortzen diren komunitateen egitura.
14. Politikariek badituzte izutzeko argudioak sareko interaktibitatea eta tresna berrien arauak integartzeko gai ez badira.
15. Sarea kapaz da betidanik desiratzen zen demokrazia adierazgarria sortzeko.
16. Zaintze aktibotzat ezagutzen den jarrera dute norbanakoek, horien ahotsa entzuteko tresnak dituztelako.
17. Umoredun parodien zirkulaziorako arintasuna errazten da.
18. Sarearen testuinguruan, jendartea adimentsuago bilakatzen da kolektiboki antolakuntza handiagoa duelako.
19. Sareak informaziorako eta akziora igarotzeko sarbideak samurtzen ditu.
20. Gizarteak eta alderdi politikoek tresna berrietan parte hartuz gero, internetek demokraziaren izaera praktikoena hozituko du”.

2.0 delako demokrazian, Roc Fages-Ramió weba, jokabidea eta politika ardatzak identifikatzen ditu komunikatzeko. Adituak dioenez, estatu espainiarrean gutxi dira sarearen baliabideak “gizartearekin hartu-eman bat mantentzeko” eratzat konprenitu dituzten politikariak (Fages-Ramió, 2008: 22).

David Caldevilla, *Democracy 2.0: politics inside social networks* lanean (2009) komunikazio politikoa gidatzeko kultura berriaz ohartzen da sareak “komunikazio horizontala edukitzeko modeloa eskaintzen duelako, hierarkia barik eta deszentralizatuta” (Caldevilla, 2009: 32). Kultura digitala berrezarpen soziala ekiteko “olatua” dela dio, informazioa sortzeko gustoa eta jakinduria partekatuaren sentimenak elkartzen direlako, doktrina ideologikoak ala komunikazio bertikalaren lerrotatze piramidalak gaindituta (2009: 33). Ez dago ahazteko, Caldevillaren artikulua 2.0un komunikazio politikoa lantzeko bitakorak, sare sozialak, mikroblogging-ak edota ikus-entzunezkoak zerrendatzen dituela (2009: 36) bi direlako demokraziaren komunikazioko zutabeak: zeharkakotasuna eta harmena (Caldevilla, 2009: 39). Aurrera eginez, Criado eta Garcíaren txostena (2012). Sarean jazotzen diren manifestazioak, autoreen arabera, blogosfera politikoa anizten dute, “demokrazietako iritzi eta eztabaida publikorako espazioa, esfera digitalaren baitan”, hain zuzen ere (Criado, García; 2012: 79).

Sarreran bi errealitate ezberdintzen dira: lehenengoa, demokrazia 2.0 kontzeptu moduan definitzen duten txostenen esparrua; eta bigarrena, ikergaia jazoera praktikoan aplikatzen duen bibliografiaren tartea. Bigarren atalean azpimarratzekoa da José Luis Dader irakaslearen presentzia. Ez dago alderatzerik Eva Camposekin batera landutako *Parliamentary Internet in Spain*

(1999-2005): *Resources for citizen contact and their use with a European comparison* deituriko ekarpena. Autoreek (2006) hiru legegintzaldi, 1999, 2001 eta 2004koa dituzte kontuan, kuantitatiboki berba eginda, estatu espainiarreko kongresu eta senatuan daudenen baliabide elektronikoen erabilpena ezagutzeko. Frantzia, Italia eta Erresuma Batuekin konparatzen dira bildutako datuak (Dader eta Campos, 2006: 123) eta, espainian mailan, kontatzen dira, besteak beste, posta elektronikoei maizenen erantzuten duten alderdiak ala ordezkari politikoak autonomia erkidegoetan bananduta (2006: 127).

*Social networks, political and Commitment 2.0: Spanish deputies in Facebook* ikerketa Túñezek eta Sixtok (2011) burutua da. Ikerlariak Facebook sare sozialean Espainiako diputatuek izandako komunikazioaren kalitatea aztertzen dute (2011: 06) eta sare sozialeko bilatzailetik abiatuta, aztertzaileek datuak batzen dituzte sormen propioko tauletan bananduta (2011: 14). Kontuak kontu, interesgarria da autoreek sarreran islatzen duten ikusmira: “Inguru eta komunikazio euskarri berria markatzen dute herritarrekin eta baita organizazioekin ere, engaiamendua interakzioa delarik” (Túñez eta Sixto, 2011: 02). Dokumentuaren hipotesi guztietatik, bigarrena azpimarratu daiteke, konpromiso 2.0a demokrazia 2.0ekin parekatzen dutelako (2011: 08). Beraz, zer da konpromiso 2.0? “Libreki komunitate birtualetan egotearen erabakia” (Túñez eta Sixto, 2011: 02).

2012ko lan batek urte bereko Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeetako lau hautagai nagusien twitter kontuak ebaluatzen ditu: Iñigo Urkullu, Euzko Alderdi Jeltzaletik; Laura Mintegi, Euskal Herria Bildutik; Patxi López, PSE-EEtik eta Antoni Basagoiti, PPtik. Cebrián, Vázquez eta Olabarrieta autoreek metodologiaren atalean komentatzen dute hautagai nagusi moduan definitzen zituztela “ikerketa hasi aurretik, bozka inguripen gehien zuten alderdi politikoak zirelako” (2012: 43). Aldi berean, derrigorrezkoa da esatea Barack Obamaren 2008ko hauteskunde kanpaina eta haren sare sozialeko jarraipen eta estaldura dokumentu honek, Túñez eta Sixtorenak (2011) eta beste hainbatena gogora dakartela demokrazia 2.0an izandako eraginagatik. Kontuan edukitzekoa. Azterketara bueltatuta, *Democratic Participation on Social Media?: The use of Twitter along the 2012 Basque Election*-ek 2012ko hauteskunde kanpainen sortutako mezuen egiletza neurtzen du (2012: 51) txioetako hipertestuaren erabilpenean (2012: 54) edota interakzioan (2012: 56) arreta jarrita.

Bibliografian barrena, Rodríguez eta Álvarez eneredua (2014). Diputatu eta senatari espainiarren sare sozialetako presentzia eta aktibitatea ikertzen dute, Dader eta Camposen txostenaren (2006) antzekoa, alegia. Hala eta guztiz ere, analisiak sare sozialetako parlamentari espainiarraren profila eratzen du (2014: 248) batz besteko ordezkari politikoen adin tartea, sexu banaketa, alderdi politiko alderaketa ala jatorrizko bizitokia baloratuta. Rodríguez eta Álvarez en miaketa 2014. urtean argitaratu arren, kontuan hartu den informazioa 2011-2012 baremoko da. Horrenbestez, Unión Progreso y Democracia bezalako alderdiek espazioa dute *Parlamentarios 2.0: presencia*

*y actividad de diputados y senadores españoles en las redes sociales-en, Gorte Nagusietan ordezkariak politikoak bada gertatzen ez bada ere.*

Espainiako kongresutik aldendu gabe, Belén Andueza eta Rocío A. del Cerrok (2015) demokrazia 2.0ari gehikuntza azpimarragarria egiten diote. Komentatu diren lanek sareko komunikazio emaitzak dituzte lagintzat baina, posible litzateke, akaso, parlamentariak izatea berorien presentzia digitala inkestatzen dutenak? *How do Members of Parliament value their presence in the Social Media? 10th term Spanish Parliament Internet Use Analysis-ek* horrela egiten du eta Espainiako diputatuei bidalitako galdetegi propioa (2015: 183) oinarritzat hartuta, 350 pertsonetako ustezko lagin osotik 33 ihardespren erreal biltzen dira, ordezkari politikoak alderdika bananduta eta Facebook eta Twitter sare sozialei espazio definitua eskainita.

Ildo berbera jorratuz baina berriro kuantifikagarriak diren datuen ikerlariak aztertuz, Manuel Sánchezek (2016) 2013ko estatu espainiarreko kongresukideen komunikazio digitala aztertzen du, batik bat, posta elektronikoa, twitter eta facebook kontua eta blog ala webgune pertsonaletik abiatuta (2016: 146). Sormen propio diren taula eta grafikoetatik, adierazteko dago denborak zenbait alderdi politikoren izen aldaketa eragin duela, Ezker Abertzalea 2015 eta 2016ko hauteskunde orokorretan ez zelako aurkeztu Amaiurren izenpean, EH Bildurenean baizik. CIUn, Convergència eta Unióren banatu ziren eta lehenengoa, PDCaten siglapean izan zen bozkagarri. UPyDk, Sánchezen (2016) ikerketan ez bezala, egungo analisi batean ez luke tarterik edukiko.

Demokrazia 2.0ren gaia emankorra izan da azken bi hamarkadetan, sarreraren hastapenean esan den bezalaxe. Aurreneko lanek transmiti zezaketen kontzeptua definitzeko beharra; beranduago egin direnek, ostera, errealitate digitalean aplikatu dute komunikazio demokratikoaren eta sarearen arteko lotura posiblea. Diputatu zein senatari espainiarren hainbateko 2.0 azterketak bildu dira, ondorioz. Hori bai, akademian *Osoigo* plataformari buruz egin dena elkartzeko ez dago artikuluak metatu beharrik, bi sormen zientifiko bakarrik ezagutzen direlako. Lehenengoa Javier Benítez ekonomilari eta Andaluziako parlamentuko kide ohiarena da, teknologia berrien eta jarduera parlamentarioaren esperientzia pertsonala (2015) esplikatzeko delako. *Osoigo.com* eta *Kuorum.org* aipatzen ditu autoreak (2015: 133) miaketa honen oinarri den plataformaz ondorengoa esanez: “*Osoigo* aditzen duten politikarien weba da” (Sánchez, 2015: 133). Bigarren tresna digitala *Osoigoren* xedeetatik aldentzen du dokumentuaren egileak eta aurreproiektuan dauden legegintza-idazkiak gizarteratzeko prozesuan kokatzen du *Kuorum.org* (2015: 133). Parlamentarismoa eta sare sozialen bizipen gizatiarra harremanetan jarrita, dokumentuaren egilearen hitzez hitzeko hausnarketa da behealdean kokatzen dena:

1. “En un contexto de crisis de lo que se ha dado en llamar la “vieja política”, y de descrédito de sus instituciones, conceptos como la transparencia, la rendición de cuentas o la participación ciudadana

se han convertido en vectores de reactivación de la confianza en el sistema tal y como lo conocemos.

2. La aplicación práctica de estas recetas no sólo debe corresponder a las instituciones, sino que también debe tener una correlación en los individuos que las configuran y llenan de sentido.
3. De la misma manera que estas nuevas prácticas suponen un aumento del nivel de exigencia de las instituciones públicas, también suponen un aumento del nivel de exigencia de los representantes y cargos públicos, que deben implicarse en la recuperación de la confianza social y ciudadana en la política democrática.
4. Las nuevas tecnologías y las redes sociales constituyen herramientas fundamentales para propiciar un mejor conocimiento del funcionamiento de las instituciones, y para fomentar la participación ciudadana en las decisiones públicas. También permiten trasladar mejor el contenido del trabajo político, y las limitaciones que existen en el marco regulatorio actual.
5. La necesidad de mejorar el debate público también debe trasladarse a la ciudadanía, ya que de lo contrario un uso incorrecto de estos vectores y de estas herramientas sólo tendrá efectos perniciosos que alimentarán el descreimiento colectivo. La madurez democrática es tarea de todos” (Sánchez, 2015: 134).

*Transparency and political monitoring in the digital environment. Towards a typology of citizen-driven platforms (2017)* da Osoigo ataria analizatu duen ikerketa nagusia. Laura Alonso-Muñoz eta Andreu Casero-Ripollésen autoretzan, datorren testuingurua da sarrerari ezartzen zaiona (2017: 04):

“The digital environment offers new opportunities for transparency. Ease of access to information for anyone is favoured by the internet. In this way, citizens can get the information they need to be able to oversee the action of the power centres. In this sense, digital technologies potentially allow the extension of the exercise of transparency by citizens. This is connected with civic monitoring, understood as the monitoring carried out by the civil society, which is a novelty derived from the Web 2.0”.

Osoigo, Kuorum, Wikitribune, Deba-t eta OpenKratio plataforma herritar digitalen konparaketa egiten da Euskal Herrian sortutako ataria *accountability* hitz gakoaren barrunbean sartuta eta “their purpose is to enable citizens to monitor and oversee the political power to hold it accountable for its actions. Their aim is to force the political class to inform, explain and justify its actions so that citizens can evaluate them and act accordingly” definizioa egokituta (Alonso-Muñoz eta Casero-Ripollés, 2017: 12). Osoigo kontu-emate prozesu teknologikotzat jotzen dute adituek, Kuorum gizarte eta konektibitate sozialarekin elkartzen dute, Wikitribune, kazetaritza partehartzailearekin; Deba-t, eztabaida publikoarekin eta OpenKratio, gobernu ireki eta gardenarekin (2017: 12).

Txostenak hamaika ondorio ateratzen baditu ere, atxikituta dagoena ideia oro batzen dituen da:

“Through different formats, citizen-driven online platforms enable access to public information via the activation of diverse mechanisms associated with transparency: like the recollection of open-government data, public-interest news articles, varied ideas and viewpoints, responses from political actors and procedures linked to political decision-making. These platforms contribute, potentially, to the reduction of the political disaffection that separates political representatives and citizens, to combat abuses, bad practices and corruption, and, in short, to improve the quality of democracy. They are examples of the exercise of citizen counterpower in the digital environment” (Alonso-Muñoz, Casero-Ripollés; 2017: 14).

Gehitzeko dago Google akademikoak zein beste dokumentazio iturriek Campos (2011a, 2011b); Castells (2006, 2009); Dader (2001a, 2001b, 2003a, 2003b); Lévy (2004); Morozov (2012) eta Surowiecki (2005) ikerlarien obrak nabarmetzen dituztela komunikazio digitala eta testuinguru politiko-soziala uztartzen dituztelako.

## **2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK**

Proiektuaren helburu zehatzak eta horiei lotutako hipotesiak definituko dira, beranduago, metodologiaren atalean aplikatuko zaizkien teknikiek ikerketaren egitura biribil dezaten.

1. Helburua: Hego Euskal Herriko politikariek 2018ko urtarriletik martxora *Osoigo* plataforman duten presentzia aztertzea eta ikertzea ia plataforma demokrazia 2.Oren eta komunikazio politikoaren adierazle oten den.

a. Hipotesia: Hego Euskal Herriko politikariek presentzia nabarmena dute aipatutako atari digitalean.

i. RQ1: Portzentualki, zer presentzia dute Hego Euskal Herriko politikariek, alderdien arabera bananduta, plataforma horretan?

ii. RQ2: Portzentualki, zenbat hitzetako ihardesprenak igortzen dituzte Hego Euskal Herriko politikariek *Osoigo* atari digitalean?

iii. RQ3: Batez beste hitz eginda, zenbateko erantzun ratioa dute politikariek?

2. Helburua: Hego Euskal Herriko politikariek, 2018ko urtarriletik martxora *Osoigo* plataforman argitaratutako erantzunetan euskal identitateari lotutako gaiak duten presentzia ikertzea.

a. Hipotesia: Hego Euskal Herriko politikarien erantzunetan ohikoa da euskal identitate propioaren gaia.

i. RQ1: Zenbateko presentzia (portzentualki) dute euskal identitateari lotutako gaiek politikariek emandako erantzunetan?

ii. RQ2: Batez beste, zenbat erantzun ematen dira euskaraz?

3. Helburua: Hego Euskal Herriko politikariek *Osoigo* plataforman 2018 urtarriletik martxora igorritako erantzunak arloka sailkatzea.

a. Hipotesia: Hego Euskal Herriko politikariek *Osoigo* plataforman 2018ko urtarriletik martxora igorritako erantzun gehienek agenda soziala dute ardatz. Autogobernua, berriz, bigarren maila batean geratu da.

i. RQ1: Batez beste neurtuta, zenbateko presentzia du agenda sozialak?

ii. RQ2: Eta agenda “nazionalari” lotutako gaiek?

4. Helburua: Hego Euskal Herriko politikariek *Osoigo* atari digitaleko erantzunak euskal hedabideen azaletako agendarekin konparatzea, gaurkotasunezko gai bertsuak lantzen ote diren argitzeko.

a. Hipotesia: Zehaztutako denbora tartean, *Osoigo* plataformara Hego Euskal Herriko politikariek igorritako erantzunek eta euskal hedabide digitalen agendek gai bertsuak partekatu dituzte.

i. RQ1: Zein hedabidetan hurbiltzen dira gehien politikarien erantzunak eta medioaren agenda?

ii. RQ2: Zeintzuk dira gehien partekatzen diren gaiak?

### **3. METODOLOGIA**

Ikerketa bidea konbinatua da, helburu, hipotesi zein iker galderak ihardesteko teknika kuantitatibo eta kualitatiboen beharra dagoelako. Mami informatiboaren kantitatea aztertu da, betiere erantzun, bertsiio eta ikusmira guztien balioa miatzeko. Bi ardatzek sostengatzen dute ikerketa sistema: Proba, eduki objektiboen bilketak eta hedabideen ikusketa hemerografikoak.

#### **3.1 Proba objektiboen bilketa**

2018ko urtarrilaren 1etik urte bereko martxoaren 31 arte jazotako Hego Euskal Herriko politikarien ihardespenak kokatzen dira teknika ala proba objektiboen instrumentuari lotuta. Rodríguez eta Valldeoriolak deritzotenez,



proba, datu objektiboen bilketa “funtsezkoa da ikerketaren aurreneko faseetan sortutako iker-arazoak ihardesteko” (2012: 38). Análisi metriko/matematikoa ardatz izanik, erantzunen azterketa egiten da itaunen gaiterji, ele kantitate edo hizkuntza interes izanik. Metodología de la investigación (2012) artikuluan hiru ardatz eskaintzen dira (derrigorrezkoena hirugarrena, kasu praktikorako), baliabide metodologikoak, txosten honetan bezalaxe, adierazteko:

“La validez se refiere a la homogeneidad, a la correspondencia entre el instrumento o técnica y el atributo que pretende medir dicho instrumento. Es decir, consideramos que un instrumento o técnica es válido cuando mide aquello para lo que se ha elaborado. Hay diferentes tipos de validez: de contenido, predictiva, concurrente y conceptual o de constructo. La segunda de las características con la que debemos contar es la fiabilidad, y hace referencia a la consistencia, estabilidad y equivalencia de los resultados. Un instrumento o técnica es fiable cuando nos ofrece resultados similares al aplicarla en situaciones similares. En el caso de los instrumentos o técnicas propios de la metodología empírico-analítica, debemos añadir la objetividad como tercera característica a considerar. El criterio de “objetividad”, al igual que los criterios de fiabilidad y validez, sufren ciertas modificaciones en la metodología constructivista. Los datos y resultados obtenidos deben ser independientes de la persona que aplica el instrumento o técnica” (Rodríguez, Valdeoriola; 2012:40).

### 3.2 Ikusketa hemerografikoa

Hedabideen azaletan, kasurako, *Berría*, *Diario Vasco* eta *El Correoren* lehen orrialdeetan argitaratutako gaiak etiketa bitartez kontatu eta sailkatzeko, ikusketa hemerografikoa funtsezkoa da. Medioei erreparatzea Osoigo plataformako erantzunen agenda herritarrarekin alderatzeko. Ana Fernándezek deritzo haren *La investigación social. Caminos, recursos, acercamientos y consejos* liburuan, ikusketa ala ikuskaritza hemerografikoaren balioa bi pausutan oinarritzen dela (Fernández, 2009: 132):

“La primera de carácter general y exploratorio, con objeto de conocer y tener información para elaborar el proyecto de investigación. La segunda de forma más pormenorizada y exhaustiva, analítica incluso, revisando datos e información para la realización de la investigación misma, y a lo largo o en paralelo a la realización de otras técnicas, si es el caso, o en exclusiva si se trata de una investigación documental únicamente”.

Ikerketa sozial bat, hemerografikoki, Fernándezek interpretatzen duen bidetik fokatuta, lortutako datuak, item zenbakiak multzokatu beharko dira. Análisiko informazio oro antolatu eta konprenitzeko, txosten honen autoreak sortutako taulak erabiliko dira eta, horrenbestez, sormen propiozkoak.


## 4. IKERKETA

### 4.1 Proba objektiboen bilketa

Irakurri daitezkeen datuak sormen propiozko tauletan kokatu dira. Hortaz, ez dago oinarri izan den iturririk.

2018ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31arte Osoigo politikariek emandako erantzunak adierazi aurretik, egokitzat har liteke Hego Euskal Herriko profil politikoei begirada orokorra egitea. Martxoaren azken egun arte informazioa berriztatuta, alegia:

1. Taula. Hego Euskal Herriko politikariak Osoigo erantzundako galderak hurrenkeraren arabera



Ikerketari egokitu zaion denbora tartea kontuan edukita, ondorengotaulan mailakatzen da ikerketarako edukia sortu duten ordezkari politikoen ibilbidea Osoigo martxan jarri zenetik:

**2. Taula. Ikerketarako ihardesprenak sortu dituzten politikarien antolaketa erantzundako galderen arabera (2014ko sorreratik 2018ko martxoaren 31arte)**

<b>POLITIKARIAREN IZENA</b>	<b>ALDERDIA</b>	<b>JASOTAKO GALDERAK</b>	<b>ERANTZUN-DAKO GALDERAK</b>	<b>IHAR-DESPEN RATIOA</b>
Izaskun Bilbao	EAJ	45	43	%95,5
Jon Hernández	EZKER ANITZA-IU	35	34	%97,1
Oskar Matute	EH BILDU	41	30	%73,1
Eduardo Maura	AHAL DUGU-PODEMOS	26	23	%88,5
Juantxo López de Uralde	EQUO	22	16	%72,7

33 dira, ordea, markatutako denbora tartean plataforman bildutako erantzunak:

**3. Taula. Ikerketan bildutako Izaskun Bilbaoren lehenengo erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Izaskun Bilbao (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-08
<b>GAIA</b>	Helena Maleno (#DEFENDIENDOAMALENO akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Caminando Fronteras/Walking borders
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	85 hitz
<b>LABURPENA</b>	Bilbao eurodiputatuak Maleno ekintzaileari babesa igortzen dio Espainiak Helena Malenori inmigrazio klandestinoaren erraztu izana leporatu ondoren.

4. Taula. Ikerketan bildutako Izaskun Bilbaoren bigarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Izaskun Bilbao (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-08
<b>GAIA</b>	UBER eta CABIFY (¡Defenfed a los taxistas! akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Plataforma TNT
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	156 hitz
<b>LABURPENA</b>	Eurodiputatuak UBER eta CABIFY enpresetan lan egiten ez duten taxisten eskubideak azpimarratzen ditu, batik bat, zergen ordainketa ardatz izanik.

5. Taula. Ikerketan bildutako Eduardo Mauraren lehenengo erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Eduardo Maura (AHAL DUGU-PODEMOS)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-09
<b>GAIA</b>	Helena Maleno (#DEFENDIENDOAMALENO akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Caminando Fronteras/Walking borders
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	23 hitz
<b>LABURPENA</b>	Maura diputatuak Helena Maleno ekintzailearen ibilbide profesionala azpimarratuz, hari egotzitako inmigrazio klandestinoaren ideia alboratzen du.

6. Taula. Ikerketan bildutako Iñigo Barandiaranen lehenengo erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Iñigo Barandiaran (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-09
<b>GAIA</b>	Correosen privatizazioa (¡No a la privatización de Correos! Akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Plataforma eventuales de Correos
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	146 hitz
<b>LABURPENA</b>	Posta zerbitzu publikoa defenditzen du Barandiaranek, adieraziz euskal instituzioen kontrolpean egon beharko lukeela.

7. Taula. Ikerketan bildutako Maite Pagazaurtunduaren lehenengo erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Maite Pagazaurtundua (UPyD)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-10
<b>GAIA</b>	Helena Maleno (#DEFENDIENDOAMALENO akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Caminando Fronteras/Walking borders
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	97 hitz
<b>LABURPENA</b>	Pagazaurtunduak Helena Maleno aktibista duintasuna bueltatzen duen emakume antzera definitzen du eta haren jarduna defendatzen du.

**8. Taula. Ikerketan bildutako Iñigo Barandiaranen bigarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Iñigo Barandiaran (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-12
<b>GAIA</b>	Artxidona kasua (#ArchidonaNuncaMás akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Andalucía Acoge
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	130 hitz
<b>LABURPENA</b>	Artxidona II. Presondegiko 500 inmigranteren barneratzearen aurrean, Barandiaranek gobernu zentralari informazioa eskatzeko jarrera adierazten du.

**9. Taula. Ikerketan bildutako Oskar Matuteren lehenengo erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Oskar Matute (EH BILDU)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-13
<b>GAIA</b>	Artxidona kasua (#ArchidonaNuncaMás akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Andalucía Acoge
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	483 hitz
<b>LABURPENA</b>	Demokraziaren aurkako eta xenofobiaren aldeko izaera erreparatzen dio Matutek estatu espainiarrari. Nazioarteko herrien elkartasuna nabarmentzen du.

**10. Taula. Ikerketan bildutako Juantxo López de Uralderen lehenengo erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Juantxo López de Uralde (EQUO)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-18
<b>GAIA</b>	Kontuak ematea
<b>ITURRIA</b>	Carmen Charo
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	122 hitz
<b>LABURPENA</b>	López de Uraldek lau hilabeteetan egindako ekintza politikoen kontuak plaritzen ditu.

**11. Taula. Ikerketan bildutako Juantxo López de Uralderen bigarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Juantxo López de Uralde (EQUO)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-18
<b>GAIA</b>	Modelo energetikoa
<b>ITURRIA</b>	Ponç Cloquell Mir
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	121 hitz
<b>LABURPENA</b>	Politikariak autokontsumoan oinarritutako modelo energetiko berria defendatzen du.

**12. Taula. Ikerketan bildutako Juantxo López de Uralderen hirugarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Juantxo López de Uralde (EQUO)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-18
<b>GAIA</b>	Ehizta galgoekin (#NoAlaCaza4F akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	NAC plataforma
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	44 hitz
<b>LABURPENA</b>	Politikariak ehizarako erabiltzen diren animalien eskubideak babesten ditu eta galgo txakur arrazaren egoera zalatzen du.

**13. Taula. Ikerketan bildutako Juantxo López de Uralderen laugarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Juantxo López de Uralde (EQUO)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-19
<b>GAIA</b>	Katamotzak
<b>ITURRIA</b>	Xavi Yebes
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	145 hitz
<b>LABURPENA</b>	Naturak eraginak ez diren katamotzen heriotzak alboratzeko beharra eskribatzen du López de Uraldek, animaliairen birkuperapenak eragin ezkorrik ez dezan izan.



14. Taula. Ikerketan bildutako Juantxo López de Uralderen bosgarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Juantxo López de Uralde (EQUO)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-19
<b>GAIA</b>	Aldaketa klimatikoa
<b>ITURRIA</b>	Charlie MT
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	281 hitz
<b>LABURPENA</b>	Aldaketa klimatikoan bortizki eragiten ez duen garraioa sustatzea premiazkoztat du López de Uraldek, hirietako kutsadura saihesteko.

15. Taula. Ikerketan bildutako Iñigo Barandiaranen hirugarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Iñigo Barandiaran (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-01-31
<b>GAIA</b>	Segurtasun agenteen soldata berdintzea
<b>ITURRIA</b>	#EquiparaciónYa (#EquiparacionYa #20EBarcelona akzioan proposatua)
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	125 hitz
<b>LABURPENA</b>	Politikariak funtzio berberak lantzen dituztenen pareko soldaten alde egiten du, baita estatu zein autonomia mailako segurtasun agenteen artean ere.

16. Taula. Ikerketan bildutako Jon Hernándezen lehenengo erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Jon Hernández (EZKER ANITZA-IU)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-02-05
<b>GAIA</b>	Langabezia (17 de octubre. Día Internacional contra la Pobreza akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Coordinadora de ONGD Euskadi
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	228 hitz
<b>LABURPENA</b>	Lanaren sustapenerako Hernándezek haren alderdiko bi proposamen idatzen ditu: lan jardunaldien ordu jaitsiera eta erreforma fiskala.

17. Taula. Ikerketan bildutako Xabier Benitoren lehenengo erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Xabier Benito (AHAL DUGU-PODEMOS)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-02-06
<b>GAIA</b>	Uranioa
<b>ITURRIA</b>	Stop Uranio
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	163 hitz
<b>LABURPENA</b>	Benitok uranio, feldespatu eta abarrentzako bideragarriak diren produkzio modeloak aipatzen ditu, estatu mailan zein Europa Batasunean etorkizun oparotsua edukitzeko.

**18. Taula. Ikerketan bildutako Xabier Benitoren bigarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Xabier Benito (AHAL DUGU-PODEMOS)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-02-06
<b>GAIA</b>	Helena Maleno (#DEFENDIENDOAMALENO akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Caminando Fronteras/Walking borders
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	101 hitz
<b>LABURPENA</b>	Estatu espainiarrak Maleno ekintzailearen inguruan Tangerren abiatutako zalatze prozesua alboratzen du Benitok Helena Maleno giza eskubideen defendatzaile moduan ikusita.

**19. Taula. Ikerketan bildutako Xabier Benitoren hirugarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Xabier Benito (AHAL DUGU-PODEMOS)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-02-06
<b>GAIA</b>	UBER eta CABIFY (¡Defendef a los taxistas! akzioan proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Plataforma TNT
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	61 hitz
<b>LABURPENA</b>	EBko Justizia Auzitegiaren erabakiarekin bat dator Benito, ordu arte UBER eta CABIFY enpresek lehia ezegokia abia zezaketelako, besteak beste.

20. Taula. Ikerketan bildutako Juantxo Iturriaren lehenengo erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Juantxo Iturria (AHAL DUGU-PODEMOS)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-09
<b>GAIA</b>	Katalunia
<b>ITURRIA</b>	Dum Dum Klax
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	68 hitz
<b>LABURPENA</b>	Dio Iturriak Katalunian blokeen aurkako politikarekin amaitu behar dela eta gizarte katalanak adostutako erreferendum batean bozkatzeko eskubidea duela.

21. Taula. Ikerketan bildutako Imanol Lasaren lehenengo erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Imanol Lasa (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-14
<b>GAIA</b>	Diputazioko kontratuak (AGORAko #ImanolekErantzun debatean proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Guten EsDavid
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	283 hitz
<b>LABURPENA</b>	Lasak deritza ELAko Txiki Muñozen pareko jarrerek zanpatzen dutela instituzio eta sindikatuak akordioetara ailegatzeko aukerak.

**22. Taula. Ikerketan bildutako Imanol Lasaren bigarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Imanol Lasa (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-14
<b>GAIA</b>	Lan ordutegiak (AGORako #ImanolekErantzun debatean proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Leire Miranda Muxika
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	438 hitz
<b>LABURPENA</b>	Dio Lasak EAEko zenbait enpresatan jada, martxan daudela lan ordutegiaren aurreratzea suposa zezaketen proiektuen eztabaida mahaia.

**23. Taula. Ikerketan bildutako Imanol Lasaren hirugarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Imanol Lasa (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-14
<b>GAIA</b>	Adindunen bizi kalitatea (AGORako #ImanolekErantzun debatean proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Jon Zalduendo
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	276 hitz
<b>LABURPENA</b>	Gizartearen zahartzaroa “Etorkizuna eraikiz” programaren baitan arazotzat identifikatuta dagoela komentatzen du Lasak Pasaian eraikiko den Adinberri zentroak oztopo soziala ikertuko badu ere.

24. Taula. Ikerketan bildutako Imanol Lasaren laugarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Imanol Lasa (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-14
<b>GAIA</b>	Gipuzkoako ekintzaileak (AGORako #ImanolekErantzun debatean proposatua)
<b>ITURRIA</b>	BIC Gipuzkoa
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	359 hitz
<b>LABURPENA</b>	“Etorkizuna eraikiz” slogana azpimarratuta, Lasak ekintzaileen defentsarako politika sustatu nahi eta behar dela adierazten du.

25. Taula. Ikerketan bildutako Imanol Lasaren bosgarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Imanol Lasa (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-14
<b>GAIA</b>	Aitatasun bajak (AGORako #ImanolekErantzun debatean proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Jon Oyarzabal
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	333 hitz
<b>LABURPENA</b>	Aitatasun baja 16 astetan finkatzearen alde aurkitzen da Imanol Lasa, berdintasuna eta aldebiko ardura Diputazioaren proposamena baita, hark dioenez.

26. Taula. Ikerketan bildutako Imanol Lasaren seigarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Imanol Lasa (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-14
<b>GAIA</b>	Lana atzerrian (AGORako #ImanolekErantzun debatean proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Asier Feijoo
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	203 hitz
<b>LABURPENA</b>	Lasak ez du partekatzen gero eta jende gehiagok atzerrian lana bilatzen duenaren burutazioa eta uste horren atzean proba estatistikoen falta somatzen du.

27. Taula. Ikerketan bildutako Imanol Lasaren zazpigarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Imanol Lasa (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-14
<b>GAIA</b>	Gazte ekintzaileak (AGORako #ImanolekErantzun debatean proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Aitana Agirre
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	383 hitz
<b>LABURPENA</b>	Ekintzailetasunaren kulturaren sustapena babesten du. Xedea hori izanik, Gipuzkoako Diputazioak urtero 50 milioi euro bideratuko ditu premiak asetzen saiatzera.

28. Taula. Ikerketan bildutako Imanol Lasaren zortzigarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Imanol Lasa (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-14
<b>GAIA</b>	Haur lapurtuak (AGORAKo #ImanolekErantzun debatean proposatua)
<b>ITURRIA</b>	María Bueno
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	185 hitz
<b>LABURPENA</b>	Lasak ez dio galderari zuzenean erantzuten eta Diputazioak 2012an enpresa pribatu bati haur lapurtuen miaketa egotzi izana ontzat hartzen du.

29. Taula. Ikerketan bildutako Imanol Lasaren bederatzigarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Imanol Lasa (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-14
<b>GAIA</b>	Segurtasun agenteen soldata berdintzea (AGORAKo #ImanolekErantzun debatean proposatua)
<b>ITURRIA</b>	#EquiparaciónYa
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	130 hitz
<b>LABURPENA</b>	Aurrera pausuak ematearen alde aurkitzen da Lasa, batik bat, ETA desagertu zenetik estatu espainiarreko segurtasun agenteen zifra EAEn beheratzeko.



30. Taula. Ikerketan bildutako Imanol Lasaren hamargarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Imanol Lasa (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-14
<b>GAIA</b>	Erraustegia Gipuzkoan (AGORako #ImanolekErantzun debategian proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Antonia Adan
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	361 hitz
<b>LABURPENA</b>	Dio Lasak Gipuzkoako Diputazioak birziklapenaren aldeko kainpainak egin dituela eta jarraituko dituela egiten. Kanpainak ez egitearena iruzurtzea dela.

31. Taula. Ikerketan bildutako Izaskun Bilbaoren hirugarren erantzuna

<b>POLITIKARIA</b>	Izaskun Bilbao (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-21
<b>GAIA</b>	Espainiar nazionalitate Legea (Osoigoko europarlamentariei proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Ce.DEU
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	53 hitz
<b>LABURPENA</b>	Bilbao eurodiputatuak dio Espainiar nazionalitate Legearen aplikazioaren alde dagoela eta EAJk halaxe defendatu duela kongresu espainiarrean.

**32. Taula. Ikerketan bildutako Izaskun Bilbaoren laugarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Izaskun Bilbao (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-21
<b>GAIA</b>	AHT Murtzian (Osoigoko europarlamentariei proposatua)
<b>ITURRIA</b>	Plataforma Pro Soterramiento Murcia
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	163 hitz
<b>LABURPENA</b>	Eurodiputatuak gaiarekiko informazio gabezia onartzen du. Halaber, AHTari loturiko edozein konpromiso legal babesten du.

**33. Taula. Ikerketan bildutako Izaskun Bilbaoren bosgarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Izaskun Bilbao (EAJ)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-21
<b>GAIA</b>	Correosen pribatizazioa
<b>ITURRIA</b>	Plataforma eventuales de Correos (Osoigoko europarlamentariei proposatua)
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	45 hitz
<b>LABURPENA</b>	Bilbaok gaiarekiko informazio gutxi duela esan eta prekarietatearen aurkako jarrera adierazten du.

**34. Taula. Ikerketan bildutako Eduardo Mauraren bigarren erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Eduardo Maura (AHAL DUGU-PODEMOS)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-23
<b>GAIA</b>	Correosen pribatizazioa
<b>ITURRIA</b>	Plataforma eventuales de Correos (Osoigoko europarlamentariei proposatua)
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	64 hitz
<b>LABURPENA</b>	Murak Correos enpresaren izaera publikoa aldarrikatzen du, kontratazio egonkorak sostengu izanik.

**35. Taula. Ikerketan bildutako Eukene Aranaren lehenengo erantzuna**

<b>POLITIKARIA</b>	Eukene Arana (AHAL DUGU-PODEMOS)
<b>ERANTZUN DATA</b>	2018-03-30
<b>GAIA</b>	Feminismoa
<b>ITURRIA</b>	FeministAlde
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>HITZ KOPURUA</b>	747 hitz
<b>LABURPENA</b>	Dio Aranak Eusko Jaurlaritzako aurrekontuen %0,11k egon beharko lukeela indarkeria matxistaren amaieraren eta berdintasuneko gizartearen eraketaren atzean.

Erantzunak gaika multzokatzeko, horien etiketak hartu dira erreferentzia moduan. Ikusketa hemerografikoko konparaketa egiteko balioko dute, item bakoitzeko etiketen alderaketa burutu baita.

**36. Taula. Ikerketan bildutako erantzunen batuketa gaien arabera**

<b>ERANTZUNDAKO GAIAK</b>	<b>ZENBAT ALDITAN: OSOIGON</b>
Migrazioa (Helena Maleno eta Artxidona kasua)	6
Posta zerbitzuen pribatizazioa	3
Segurtasun agenteen soldata berdintzea	2
UBER eta CABIFY	2
Adindunen bizi kalitatea	1
AHT Murtzian	1
Aitatasun bajak	1
Aldaketa klimatikoa	1
Ehizta galgoekin	1
Erraustegia Gipuzkoan	1
Espainiar nazionalitate Legea	1
Feminismoa	1
Gazte ekintzaileak	1
Gip. Diputazioko kontratuak	1
Gipuzkoako ekintzaileak	1

Haur lapurtuak	1
Katalunia	1
Katamotzak	1
Kontuak ematea	1
Lan ordutegiak	1
Lana atzerrian	1
Langabezia	1
Modelo energetikoa	1
Uranioa	1
<b>Orotara</b>	<b>33</b>

#### 4.2 Ikusketa hemerografikoa

Berria, Diario Vasco eta El Correoren azaletako gaitegiek osatzen dute azterketako bigarren atala. Portadak @berria, @elcorreo\_com eta @diariovasco-ren Twitter kontuetako argitalpenetatik lortu dira. Irudian edozein portada bereganatzeko sistema:



Figura 1: Ikusketa hemerografikoko adibidea.  
Iturria: A. Agirregabiria

Segidan aurkitzen diren taulek hedabide bakoitzeko gairik jorratuenak deskribatzen dituzte.

37. Taula. Ikusketa hemerografikoko emaitzak Berrian

<b>GAIEN ETIKETAK (AIPATUENAK)</b>	<b>ZENBAT ALDITAN: BERRIA</b>
Katalunia	44
Euskal presoak	15
Nafarroako Gobernua	11
Jaurlaritza	9
Pentsioak	9
Athletic	8
Euskera	8
Literatura	8

38. Taula. Ikusketa hemerografikoko emaitzak Diario Vascon

<b>GAIEN ETIKETAK (AIPATUENAK)</b>	<b>ZENBAT ALDITAN: <i>DIARIO VASCO</i></b>
Reala	85
Katalunia	40
Klimatologia	30
ETA	26
Pentsioak	25

**39. Taula. Ikusketa hemerografikoko emaitzak El Correo**

<b>GAIEN ETIKETAK (AIPATUENAK)</b>	<b>ZENBAT ALDITAN: EL CORREO</b>
Athletic	65
Katalunia	47
Pentsioak	27
ETA	26
Klimatologia	26
Otxarkoaga	20

Azpimarratzeko dago, beste behin, plataforma digitaleko erantzunetarako zein hedabideetako azalen kasurako etiketak sormen propiozkoak direla.

**5. ONDORIOAK**

“Osoigo plataforma: Hego Euskal Herriko politikarien erantzunak eta horien konparaketa euskal hedabideen azalekin (2018ko urtarriletik martxora)” ikerketa burututa, hasierako helburu eta hipotesiak egiaztatu behar segidako adierazpenetan:

Osoigo atari digitala demokrazia 2.0ren eta komunikazio politikoaren adierazlea da. Hiru hilabeteetako Hego Euskal Herriko politikariek sortutako edukiak batuta, ondorioztatu daiteke herritarrek eta ordezkari politikoak elkartzeko funtzioa betetzen duela. Webguneak ia 800 politikari ditu alta emanda, 70.000 herritarrek osatutako komunitate birtuala du komunikazio harremanak era zuzenean, horizontalean eta izaera aktiboarekin gerta daitezten. Galdera edota herritarren zalantzek politikarien ihardespenez dituzte web orrialdean. Berez, Osoigon helburu nagusia elkarrizketa sortzea delako.

Esateko atari digitalaren sorrera bi data zehatzen artean kokatzen dela, 2011 eta 2014 artean, hain zuzen ere. 2011n, besteak beste, maiatzaren 15eko M-15 mugimendua azpimarra daiteke. Protestetan parte hartu zutenei Hiritar Haserretuak adiera egokitu zitzairen, kexak era autonomoan eratu ziren, demokrazia, politika eta erabaki sozioekonomikoen erreforma zutelako xede. Handik, 2014ko martxoaren 11an eta Pablo Iglesias Turriónen burututa, Podemos alderdia sortu zen, plazetan herritarrek igorritako haserrea parlamentu anitzetan ordezkatzeko asmoarekin. Beranduago, Ciudadansek Kataluniako muga geografikoak gainditu eta estatu mailara eman zuen jautzia. Testuinguru honetan topatzen da Osoigoren hasiera, Garaia liburu dendari espazio teknologiko berria gehitu zitzaielako hastapenak

2011an izanda eta 2014an proiektua start up bihurtuta. Hortaz, aldaketa, nobedadezko garaia partekatzen du plataformak, komunikazioaren ikuspegitik, politika egiteko tresna erabilgarria delako. Ohiko publikoetatik alendu gabe, komunitate gehiagoren ezagutza suposatzen duelako atariak.

Hego Euskal Herriko politikarien presentzia urria da aipaturako atari digitalean. 2018ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra arte kide politikoez webgunean orain arteko Hego Euskal Herriko edukiaren %2,1 sortu dute, beste %97,9 jada argitaratuta egonda. 33 ihardespentatik 18 erantzun dira Euzko Alderdi Jeltzalearen ordezkariak sortutakoak, ikerketako edukiaren %54,54, zehatzago hitz eginda. Ahal Dugu-Podemosekoak dira bigarren postuan finkatu direnak 7 erantzunekin eta EQUOko Juantxo López de Uraldek 5 eduki argitaratu ditu. Ikerketa hau hasi baino lehenago, plataforman Hego Euskal Herriko politikarien 1.538 erantzun irakurri zitezkeen. Horiei erreparatuta, PSE izango litzateke 2014tik ihardespen gehien eman dituen alderdia, eduki guztiaren %27 ordeztzen duelako. Elkarrekin Podemos koalizioak, %26 eta Euskal Herria Bilduk, %22. Nabarmenezkoa litzateke emaitza kuantitatiboek ez dutela islatzen ez EAEko ezta Nafarroako parlamentuetako eserlekuen banaketa ere. Osoigoko parte hartzea, ez da hauteskunderen espektrora ala mapen portzentajeetara mugatzen.

Alderdi politiko bakoitzean, ihardespenen luzerari dagokionez, ezberdintasunak somatzen dira Osoigon, Juantxo Iturriak 68 berbatako edukia plataformara igo duen bitartean, Eukene Arana alderdikideak 747 eleetako erantzuna argitaratu duelako. Batez beste, politikariek 223 hitz erabili dituzte argitaratutako edukietan. Horrek Twitter sare sozialeko 140 ala 280 karaktereetako txioen inflexio puntua suposatzen du, ordezkari politikoen azalpenak ez direlako esaldi gutxira zedarrizten, irakurketa eta hausnarketa geldoagoak eskatzen dute informazioek. Alderdikideen inplikazioan, guztien erantzute ratioak %80ko konpromisoa gaintitzen du. Datuak, 2014tik abiatzen badira ere, esan daiteke Hego Euskal Herriko politikariei bidaltzen zaizkien itaunen gehiengoak erantzuna, feed-backa duela eta aldebikotasun erlazioa betetzen dela.

Hego Euskal Herriko politikarien erantzunetan ezohikoa da euskal identitate propioaren gaia. Plataformara igondako eta ikerketako laginean aztertutako 33 ihardespentatik bakarrak ere ez dio nazio, sentimen ala euskalzaletasun pareko ezerrri erantzun. Kataluniari buruz galdezka, aldiz, eduki bat sortu da. Datuak adierazgarritzat har daitezke komunitate birtuala osatzen duten herritarren interesen artean ez delako aurkitzen Hego Euskal Herriari eragin liezaiokeen eszenatoki politiko berririk. Kontrapuntu antzera ondorioztatzen da, batik bat, Euzko Legebiltzarrean EAJK eta EH Bilduk eserlekuen gehiengoa izateari, erabakitze eskubidea aldarrikatzen dutenak direlako, zibernauten agendek bestelako lehentasunak, premiak dituzten bitartean. Hori bai, konprenitzen da webguneko parte hartzaileek ez dituztela euskal herritarren nahi guztiak aintzat hartzen.

Hizkuntzaren kasuan, politikariek gaztelania erabiltzeko joera argi plazaratzen dute, eduki guztiak gazteleraz sortu direlako eta euskararen



presentziak lekurik ez duelako, lagineko ihardespenetan, gutxienez. Sintomatikoa Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan dagoelako moldatuta Osoigo (baita katalanieraz ere) eta ordezkari politikoko asko elebidunak direlako. Erlazio komunikatiboek gaztelaniazko zutabeak dituzte bakarrik.

Igorritako erantzun gehienek agenda soziala dute ardatz. Herritarren galderetatik jaiotako tendentzia, jaidura ala beste joera bat suposatzen du jasotako ia laginaren erdiak, %48k, gaitegi sozialdun edukiek islatzen dituztelako erabiltzaile galdetzaileen premia informatiboak. Erkidego ala estatu mailako barometroetako itemekin lotura izan lezakete, lehenengo postuetan kokatzen diren makrogaiek esparru sozioekonomikoa hartzen dutelako. Autogobernua berriz, eta eskalzaletasunarekin edota euskararen erabilpenarekin gertatu den bezalaxe, “nazio” kutsudun jakinminek ez dute espaziorik. Galderak, gehien bat, pertsonalizatuta daude eta ez dira kolektibo, giza talde bati eragiten dietenatarikoak.

Plataformara Hego Euskal Herriko politikariek igorritako erantzunek eta euskal hedabide digitalen agendek gai ezberdinak partekatu dituzte. Zehaztutako denbora tartean, Osoigoko 25 gaitatik 6k izan dute presentzia hedabideetan, etiketen bitartez. Batutako edukiaren %24. Komunikabideen aldetik aztertuta, ostera, zortzi gai, itemen etiketa landu dira, guztiaren %1,9 izanik. Interesgarritzat jotzen badira ere bi portzentajeak, ez du zentzurik bi foku ezberdinetako balorazioak egiteak, ikuspegiak zinez urrunak izan daitezkeelako eta, antzematen denez, bi agenda publiko paralelo existitzen direlako: alde batetik, plataformako internautek proposatzen dutena; eta beste aldetik, kazeten gertaerek biltzen dutena. Atariko erabiltzaileak dira politikariek ihardetsiko duten itaunen jabe. Webguneko edukiaren hasierako sortzaileak herritarrak dira. Komunikabideen kasuan, herritarrek ez dute igoerle funtzioa partekatzen, informazioaren hartzaile, jasotzaile direlako. Komunikazio prozesuko muturreko ertzetan kokatzen dute agendek herritarra.

Lehenengoz, Osoigoko galdetzaileen itaunak daude, gehienak gai sozialdun esparruan finkatuta eta arazo partikularren sentsazioa transmitituta. Bigarren, hedabideen kasuan eta kontrari, eguneroko agenda zabalago antzematen da, Katalunia edota futbolaren mailako kontuak jorratuta. Norbanakoaren interes mugatuetatik aldentzen dira gaiak, eremu nagusiagodun informazioak lantzeko, giza-talde bati edo bat baino gehiagori eragin diezaieketenak nabarmenduta.

Ondorioz, ez litzateke egokia izango adieraztea Osoigoko galdera-erantzunen agendak Hego Euskal Herriko gizadiaren kezkak ordeztzen dituenik, espazio edota denboran partikulartasun muina dutelako. Hori bai, ez dago ukatzerik Osoigoren proposamenak herritar eta politikariek komunikaziorako bideak, abaguneak eraikitzen dituela, sarean politika egiteko tresna baliagarria delako. Plataformaren eta euskal hedabide digitalen agendak paraleloan jarri, interpretatu behar dira. Atariko makrogaiek ez dute hedabideetan irakurtzen diren artikuluen izaera arbuiztzen,

gehiago, zenbait antzekotasun dituzte. Errealitatearen pertzepzio pluralagoa eskaintzen dute batera.

Etorkizuneko ikerketa posibleei begira, suerta liteke analisirako erabilitako lagina handitzea, bai denboran zein lurraldean. Aldi berean, akaso interesa edukiko luke Osoigo plataformak, eduki sortzaile moduan, iturri gisa medioetan duen presentzia miatzea, herritarren galderetan hasitako prozesu komunikatiboa litzatekeelako.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKO ETA WEBGRAFIKOAK

### Bibliografia

- ALONSO-MUÑOZ, L.; CASERO-RIPOLLÉS, A. (2017): Transparency and political monitoring in the digital environment. Towards a typology of citizen-driven platforms. *Revista Latina de Comunicación Social*, 72. zkia., 1.351-1.366 or.
- ÁLVAREZ, D.; RODRÍGUEZ, R. (2014). *Parlamentarios 2.0: presencia y actividad de diputados y senadores españoles en las redes sociales*. Congreso de los Diputados. Madril, Espainia.
- ANDUEZA, B.; DEL CERRO, R. (2015). How do Members of Parliament value their presence in the Social Media? 10th term Spanish Parliament Internet Use Analysis. *Doxa Comunicación*, 21. zkia., 161-183 or.
- BENÍTEZ, J. (2015). Nuevas tecnologías, actividad parlamentaria y proximidad: Una experiencia personal. *Revista Cuadernos Manuel Giménez Abad*, 9. zkia., 127-134 or.
- CAIRO CAROU, H. (2002). *Democracia digital: límites y oportunidades*. Madril, Espainia: Trotta editoriala.
- CALDEVILLA, D. (2009). *Democracia 2.0: La política se introduce en las redes sociales/Democracy 2.0: politics inside social networks*. Pensar la publicidad, 3. zkia., 31-48 or.
- CAMPOS, E. (2011a). *La ciberdemocracia en el Congreso de los Diputados, 2004-2008*. Congreso de los Diputados. Madril, Espainia.
- CAMPOS, E. (2011b). El desarrollo de la ciberdemocracia en el Congreso de los Diputados: la comunicación e interacción entre ciudadanos y parlamentarios a través de internet (2004-2008) [Tesia], CSUC, Bartzelona.
- CASTELLS, M. (2006). *Comunicación y poder*. Bartzelona, Katalunia: Alianza editoriala.
- CASTELLS, M. (2009). *La sociedad red: una visión global*. Bartzelona, Katalunia: Alianza editoriala.
- CEBRIÁN, E.; VÁZQUEZ, T.; OLABARRIETA, A. (2013). *¿Participación y democracia en los medios sociales?: El caso de Twitter en las elecciones vascas de 2012*. Uvadoc, Valladolid, Espainia.

- CRIADO, J.; GARCÍA, R. (2012). ¿Democracia 2.0? Un análisis del potencial deliberativo de la blogosfera política. *Revista de Estudios Políticos*, 155. zkia., 71-99 or.
- DADER, J. (2001a). La ciberdemocracia posible: Reflexión prospectiva a partir de la experiencia en España. CIC. *Cuadernos de información y comunicación*, 6. zkia.
- DADER, J. (2001b). Ciberdemocracia: el mito realizable. *Palabra Clave*, 4. zkia.
- DADER, J. (2003a). Ciberdemocracia y ciberparlamento. El uso de correo electrónico entre los parlamentarios españoles y ciudadanos comunes (1999-2001). Telos: *Cuadernos de Comunicación, Tecnología y Sociedad*, 55. zkia., 86-96 or.
- DADER, J. (2003b). Ciberdemocracia y comunicación política virtual: el futuro de la ciudadanía electrónica tras la Era de la Televisión. *Comunicación política en televisión y nuevos medios*, 309-342 or.
- DADER, J.; CAMPOS, E. (2006). Parliamentary Internet in Spain (1999-2005): Resources for citizen contact and their use with a European comparison. *Zer Aldizkaria-Revista de Estudios de Comunicación*, 11. zkia.
- DEL MORAL, J. (2006). *Los principios de la política 2.0*. [Sarean/online] Blog de Redes Sociales. Erabilgarri: <http://blogs.alianzo.com/redessociales/2006/02/21/los-principios-de-la-politica-2-0/> [Sarrera 2017ko abenduaren 15ean egina].
- FAGES-RAMIÓ, R. (2008). Actitud 2.0: la política más allá de los blogs. *IDP Revista de internet, derecho y Política*, 7. zkia., 7. or.
- FERNÁNDEZ, A. (2009). *La investigación social. Caminos, recursos, acercamientos y consejos*. Mexikoko Hiria, Mexiko: Trillas editoriala.
- LÉVY, P. (2004). *Ciberdemocracia: ensayo sobre filosofía política*. Bartzelona, Katalunia: UOC editoriala.
- MOROZOV, E. (2012). *El desengaño de Internet: los mitos de la libertad en la red*. Madril, Espainia: Grupo Planeta editoriala.
- RODRÍGUEZ, D.; VALLDEORIOLA, J. (2012). Metodología de la investigación. *Mexiko: Red Tercer Milenio*. [http://www.aliatuniversidades.com.mx/bibliotecasdigitales/pdf/axiologicas/Metodologia\\_de\\_la\\_investigacion.Pdf-en\\_birkuperatua](http://www.aliatuniversidades.com.mx/bibliotecasdigitales/pdf/axiologicas/Metodologia_de_la_investigacion.Pdf-en_birkuperatua).
- SÁNCHEZ, M. (2016). La comunicación de los diputados españoles a través de Internet. *Revista de Humanidades*, 28. zkia., 139-168 or.
- SUROWIECKI, J. (2005). *Cien mejor que uno*. Bartzelona, Katalunia: Urano editoriala.
- TÚÑEZ, M.; SIXTO, J. (2011). Redes sociales, política y Compromiso 2.0: La comunicación de los diputados españoles en Facebook/Social networks, political and Commitment 2.0: Spanish deputies in Facebook. *Revista Latina de Comunicación Social*, 66. zkia., 210-234 or.
- WEINBERGER, D. (2000). *Manifiesto Cluetrain*. York Berria, Estatu Batuak: Basic Books editoriala.

### **Webgrafia**

*BERRIA*ren twitter kontua: <https://goo.gl/cfeCpf>

*DIARIO VASCO*ren twitter kontua: <https://goo.gl/rN2xv8>

*EL CORREO*ren twitter kontua: <https://goo.gl/DZwKAV>

*OSOIGO* plataforma digitala: <https://goo.gl/uEyxr>